



Aransolo

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Aránsolo



43° 10' 19"

2° 33' 39"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Aransolo... radicante en la Cofradía de Ocampo, jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su zaguan y tejabana adherentes un solar de sesenta y tres estados, y la que se compone de una habitación y un piso alto..."

DJE 1/78 or. (1864)

Topatutako lehen arrasto dokumentala 1704koa da, eta bertan Okango kofradiaren baitan agertzen den baserri bati erreferentzia egiteko erabiltzen da izen hau, hots, *Aransolo* (Bizkaiko su-errolak). Hortik aurrera, errolda guztietan behin eta berriz agertzen den baserria da, eta izenari dagokionez, ia aldaketarik ez du jasan hiru mende hauetan: *Aranzólo* (1859, BUA, Nmcr) edota *Aransolo* (1967 BUA, CE). Auzotarrek *Aránsolo* forma erabiltzen dute ahozko komunikazioan.

Izugarrizko berrikuntza eta handitze lanak egin berri dizkioten baserria da, ganbara aldeko solairua jaso arte, hormigoia erabiliz. Lehen ere izan zituen hainbat eraldatze, leio bateko XVIII. mendeko inskripzioak adierazi moduan. Lau isuritako teilatua bazeukan ere, orain bikoia du eta itsatsita beste etxe berri bat egin diote. Dena den, harlangaitzaz egindako etxe handia da, ohiko kalitateko harlanduekin kantaletan, leihoetan eta osteko ate baten dobladun dintelean, nahiz eta badituen egurrezko dinteldun baoak ere.

toponimia

Hain menditsua den gure Euskal Herrian oso arrunta da haran hitzaz osatutako leku-izenak. Bigarren osagaia solo da eta gaur egun baratza moduan ulertzen bada ere, ortua edo baratza eta soloa ez dira gauza bera izan. Soloan garia, eta geroago artoa eta patata, ereiten ziren eta baratzean, berriz, lapikokoak. Gure kasu honetan haraneko soloa hau garai batean deigarria izan behar zen etxe baten izena bihurtzeko. Agian XVI. mende arte ohikoa zelako garia maldetan ereitea ibarrak hezeegiak zirelako.